

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

479/2021 Foru Agindua, abenduaren 27koa. Aldatzea apirilaren 27ko 297/2018 Foru Aginduaren (2018ko maiatzaren 9ko ALHAO, 53 zk.) lehenengo xedapen zatia, eta Oihana Santos Beistegui andrea txertatzea sistema irekiko txanda orokorraren bidez Administrazio Bereziko eskalan, azpieskala teknikoan, erdi-mailako teknikarien klasean, nekazaritzako ingeniari teknikoan, A2 taldean karrerako funtzionario gisa sartzeko hautatutako pertsonen behin betiko zerrendan eta praktiketako funtzionarioa izendatzea

2021eko uztailaren 9an, Administrazioarekiko Auzien Gasteizko 1. Epaitegiak 380/2021 zenbakiko epaia eman zuen, azaroaren 3an irmo deklaratu, zeinaren bidez Oihana Santos Beistegui andreak aitortzen baitzaio oposiziofaseko bigarren ariketa gaindituta izatea eta gainerako hautaketa prozesuarekin jarraitzea, azaroaren 21eko 351/2016 Foru Aginduaren bidez deitutako hautaketa probei dagokienez (2016ko azaroaren 28ko ALHAO, 133. zk.).

Oposizioko bigarren ariketa gainditu ondoren, izangaiak azken puntuazio nahikoa lortu du plaza lortzeko. Horrebestez, apirilaren 27ko 297/2018 Foru Aginduaren lehenengo xedapen zatian jasotzen den hautatuko pertsonen behin betiko zerrenda aldatu behar da. Foru Agindu horrek sistema irekiko txanda orokorraren bidez Administrazio Bereziko eskalan, azpieskala teknikoan, erdi-mailako teknikarien klasean, nekazaritzako ingeniari teknikoan, A2 taldean karrerako funtzionario gisa sartzeko hautatutako pertsonen behin betiko zerrenda argitaratu zuen.

Bat etorritz honako hauetan ezarritakoarekin: Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretua, zeinaren bidez funtzio publikoaren alorreko eskumenak ezarri baitziren, eta ekainaren 1eko 23/2021 Foru Dekretua, zeinaren bidez Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailaren egitura organiko eta funtzionala onetsi baitzen,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Aldatzea apirilaren 27ko 297/2018 Foru Aginduaren (2018ko maiatzaren 9ko ALHAO, 53 zk.) lehenengo xedapen zatia, eta Oihana Santos Beistegui andrea txertatzea sistema irekiko txanda orokorraren bidez Administrazio Bereziko eskalan, azpieskala teknikoan, erdi-mailako teknikarien klasean, nekazaritzako ingeniari teknikoan, A2 taldean karrerako funtzionario gisa sartzeko hautatutako pertsonen behin betiko zerrendan.

Bigarrena. Oihana Santos Beistegui andrea praktiketako funtzionarioa izendatzea, 2022ko urtarrilaren 4tik aurrerako ondoriekin, Nekazaritza egituretako teknikaria lanpostuari atxikita (1224.002 kodea).

Hirugarrena. Praktika aldia egiteko atxikipenak behin-behineko izaera du.

Laugarrena. A2 taldeko oinarrizko ordainsariak eta atxikitako lanpostuari dagozkion ordainsari osoak jasoko dituzte.

Bosgarrena. Praktika eta prestakuntza aldia ebaluatzeko Balioespen Batzordeko kide hauek izendatzea:

Batzordeburua	Titularra	Lourdes Martínez de Lagos Manzana
	Ordezkoa	Carlos Auzmendi Irastorza
Batzordekideak	Titularra	Cristina Navas Iburguren
	Ordezkoa	Gemma Fernández de Landa Ipiña
	Titularra	Pablo Martínez de Arbulo Echevarría
	Ordezkoa	Idoia Lasanta Pegado

Seigarrena. Aipatutako epaia betetzat ematen dituen foru agindu honetako aurreikuspenei dagokienez, interesdunek uztailaren 29/1998 Legeak (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioarena) 109. artikuluan epaien exekuzioari buruz adierazten duen intzidentea abiarazi ahal izango dute.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko azaroaren 27a

Bigarren diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR